

Zaindariarekin ospatzen

Getaria, Mungia, Lesaka
San Anton eguna
ospatuko dute
gaurtik igandera

M. CARRAMIÑANA

Nahikoa da egutegiari begiratzea gaur San Anton eguna dela ikusteko, eta zaindaria, Euskal Herriko zenbait herritan, azoka eta festa-rekin batera dator aspalditik. Osteguna izan arren, ohiturari eutsiko diote Getarian (Gipuzkoa) San Anton ospatzeko. Goizeko meza nagusiarekin hasiko dira, eta, eguerditik aurrera, txakolin uzta berriaren aurkezpena egingo dute frontoian. Jarraian, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak ariko dira udaletzeko balkoitik. Bestalde, Trikitilariak

eta herri kirolak ere ez dira faltako gaur.

Lesakan (Nafarroa), berriz, igandera arte itxaron beharko dute zaindariaren omenezko festa-rekin gozatzeko. Goizean goiz mendi irteera egingo dute, eta, hamarretatik aurrera, meza egingo dute orduro basilizan. Erromeria arratsaldeko 18:00etan helduko da herriko Plaza Zaharrera, Egan talde iaoiaren eskutik. Talo bat jan eta dantzatzeko aukera izango dute hara bertaraten direnek.

SAN ANTONTXU. Bizkaian ere badira San Anton eguna ospatzen duten herriak, Mungia esaterako. Bertan, gainera, San Antontxu azoka handia antolatzen dute urtero. Bihar izango da, goizeko hamarretatik aurrera eta iluntzera arte. Azoka gunetik Foru plazara luzatuko den eremu handi batean jarri-


ko dituzte saltokiak; besteak beste, animaliak, baserriko lanabesak, frutak, barazkiak, landareak eta txerrikiak izango dituzte Mungia-rajotaren direnek.

Azokaren harira, askotariko ikuskizunak eta ekitaldiak prestatu dituzte mungiarrek biharko, eta, gainera, San Antontxu jaiak igandera arte luzatuko dituzte. Herri bazkaria bihar bertan egingo dute, Legarda ikastetxean. Hamabi euroko txartelak aurretik erosi beharko dituzte parte hartu nahi dutenek Mugire txokoan. Arratsaldean, pilota partidak, esku-huska, eta umeentzako antzerkia izango dira. Eta gauean, Benito Lertxundik konzertua egingo du.

Zer: San Anton eguna.

Non: Mungian (Bizkaia), Getarian (Gipuzkoa) eta Lesakan (Nafarroa).

Noiz: Gaurtik igandera.



Getarian txakolina izaten da eguneko protagonista. CORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS